Lan-eskaintzen erregistroa 2019ko abuztuan

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2019ko abuztuan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 678 izan da, uztailean baino 610 gutxiago eta joan den urteko abuztuan baino 30 gutxiago. Egunean bataz bestez 32 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 26 eskaintza gutxiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2019ko abuztuan 93 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 339 Gipuzkoan eta 246 Bizkaian. Lan-eskaintzen %50 Gipuzkoako KAUetan erregistratu dira, % 36,3 Bizkaian eta % 13,7 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 49,7 murriztu dira eskaintzak (92 eskaintza gutxiago), Gipuzkoan % 40,3 murriztu dira ere (229 eskaintza gutxiago) eta baita Bizkaian ere (228 eskaintza gutxiago, %54ko jaitsiera).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 18 eskaintza gutxiago erregistratu dira, % 21,2ko murrizketa; Bizkaian eskaintza kopurua 50tan gutxitu da, % 16,9ko murrizketa, eta azkenik, Gipuzkoan 45 eskaintza gehiago izan dira, %1 5,3ko hazkundea.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. 5 eskaintzeko 1 zerbitzuetako lanbide-profilerako erregistratu da (144 eskaintza); ez-kualifikatuen lanbide-profilak jarraitzen dio (122 eskaintza). Industriako, zientzia teknikari eta laguntzako teknikarien lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 96, 84 eta 82 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak zuzendarienak izan dira (6).

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, hazi diren eskaintza bakarrak, zuzendarien profilekoakizan dira (+3). Balore absolutuetan gehien murriztu diren eskaintzak zerbitzuetakoak izan dira (%48,6ko murrizketa, 140 eskaintza gutxiago); balore erlatiboetan aldiz, zientzia teknikarienak izan dira (84 eskaintza gutxiago, %50,9ko murrizketa).

Urte arteko saldoari erreparatuz, gehien hazi direnak, administrariena izan da (13 eskaintza gehiago, %24,1eko hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintzak laguntzako teknikarienak izan dira (%22,6ko murrizketa, 24 eskaintza gutxiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 12,5ek kontratu mugagabea eskaini dute; % 87,2k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,3k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 85 izan dira, 86 gutxiago aurreko hilabetearekin alderatuz, % 50,3ko murrizketa. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 521etan murriztu dira: 591 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan murrizketa % 46,8koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2019ko abuztuan 2 izan dira, aurreko hilean baino 3 gutxiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 15ean murriztu dira (%15eko jaitsiera), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 2,3 murriztu dira, 14 eskaintza gutxiago eta merkataritzako kontratuen eskaintza 1 gutxiago izan da.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2019ko abuztuan erregistratutako lan-eskaintzen %73,1ak (496 eskaintza) 0 tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 16,7k (113) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; % 2,5eko eta % 0,1ko pisua dute, hurrenez- hurren (17 eta eskaintza 1 guztira).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak murriztu dira. Gehien murriztu diren eskaintzak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (445 eskaintza gutxiago, % 40,7ko murrizketa).Balio erlatiboetan 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira murrizketa handiena jasan dutenak (%87,5, 7 eskaintza gutxiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da: gehien hazi diren eskaintzak 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (5 eskaintza gehiago, %41,7ko hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintza motak 1 eta 3 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (20 eskaintza gutxiago, %25eko murrizketa).

• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 17,8k zehazten du datu hori (678 eskaintzetatik 121). 121 eskaintza horietatik, 95 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 26ak lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 71 gutxitu dira uztailarekin alderatuz, hau da, % 42,8 murriztu dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 25 gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 49ekoa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintza 1 gehiago egon da (% 1eko hazkundea), lanaldi partzialekoen kasuan, aldiz, 15 eskaintza gutxiago erregistratu da (% 36,6ko murrizketa). Aztertutako hiru hilabeteetan (2018ko abuztua, 2019ko uztaila eta 2019ko abuztua), lanaldi partzialeko eskaintzen pisu handiena 2018ko abuztuan izan zen, % 30,4ko pisuarekin, lanaldi mota zehazten duten eskaintza guztien artean.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Erregistratutako eskaintzen % 0,9 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 678 eskaintzetatik 6 soilik. Aurreko hilean 13 izan ziren.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 87,8k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 678 eskaintzetatik 83k soilik zehaztu dute.



83 eskaintza horietatik, 35ek LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 42,2k); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraituz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 25 eskaintza (% 30,1). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 20 eskaintzekin (% 24,1). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 3 eskaintzekin, eta % 3,6ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 83 eskaintzen artean.

Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago abuztuan lan-eskaintza gutxiagotan zehaztu dela prestakuntza maila, uztailean baino (83 eskaintza abuztuan; 135 uztailean), eta hauen pisua eskaintza guztien artean handiagoa izan da (% 12,2 abuztuan eta % 10,5 uztailean).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak gutxitu dira. LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien murriztu direnak balio absolutuetan (25 eskaintza gutxiago, % 41,7ko murrizketa); balio erlatibotan, batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien murriztu direnak (%66,7ko murrizketa, 6 eskaintza gutxiago).

2018ko abuztuarekin alderatuz,hazi diren eskaintzak derrigorrezkoa ikasketak eta LHkoak eskatzen dituztenak izan dira (7 eta 8 eskaintza gehiago, hurrenez hurren). Murriztu direnak, aldiz, unibertsitate ikasketak eta oinarrizkoak eskatzen dituztenak izan dira (3 eta 1 gutxiago, hurrenez hurren).

- **ESKAINTZAREN JARDUERA**

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduerak merkataritza, administrari, industria eta osasun arlokoak dira, eskaintzen % 13,7ko, % 11,2ko, eta azken biak % 10,8ko pisuarekin, hurrenez- hurren (93,76 eta 73 lan-eskaintza azken bi jardueretan, 678 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz gero, hazi diren eskaintza bakarrak, argindar hornikuntzakoak izan dira (eskaintza 1 egon da, uztailean aldiz bat ere ez). Eboluzio negatiboa izan dutenen artean ostalaritzakoak izan dira gehien murriztu direnak (% 64,7ko murrizketa, 101 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, behera gehien egin dutenak ostalaritza (-23) eta industria (-16) izan dira. Bestalde, administrazio publikokoak eta zientzia profesionalenak izan dira gehien hazi direnak (22 eta 11 eskaintza gehiago, hurrenez hurren).


Eskaintzaren jarduera
Etxeak langile enplegatzaile gisa
Beste zerbitzuak
Artistikoak, jolaserakoak eta entretenimenduzkoak
Osasun jarduerak eta gizarte-zerbitzuak
Hezkuntza
Administrazio publikoa
Jarduera administratiboak
Profesionalak, zientifiko eta teknikoak
Higiezinen arloko jarduerak
Finantza eta aseguru jarduerak
Informazioa eta komunikazioa
Ostalaritza
Garraio eta biltegiratzea
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketa
Eraikuntza
Ur-horniketa, handakinen kudeaketa
Argindar, gas, lurrun horniketa
Manufaktura industriak
Erauzketa industriak
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza
0,00%
2,00%
4,00%
6,00%
8,00%
10,00%
12,00%
14,00%
16,00%